


Arrasate

P R E S S

1997ko
apirilak 30
361. zenb.




Juan Ramon Garai (CC.OO)




Carbine Aranburu (LAB)

Lan erreforma



Luis Migel Saenz (ELA)



Salvador Peña (UGT)

Mahaingurua




VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ■ Tel.: 79 78 10 ■ ARRASATE
Ibargarai, 24 ■ Tel.: 76 12 21 ■ BERGARA

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**




SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.



Etxe
mobiliario y
decoracion

- PROIEKTUAK
- BARNE-DISEINUA
- OBRAK



Irteera eskaintza!

Hiru eserleku, mikrofibran tapizatua.

Buruko erainsgarriak 123.840 pta.tik aurrera.

Ferrerias, 17 (Alde Zabarra) • Tel. eta faxa: 79 03 17 • ARRASATE

Ilusioa

Nik ama Osinakoa daukat. Deba errekararen bazterrean kokatzen da Osina. Han pasatu zuen nire amak bere umearoa. Gerra ostea zen. Gosea eta miseria nonahi. Oraingo erreka zikin eta ziztrin hori zeukan Osinako umeteriak parketzat. Jolaserako ebalten zuten, han bizi izandako gertaerek ez daukate akaberarik amaren ezpanetan.

Askotan entzun izan diot, benetako ilusioa, herriko festek ematen zietela: "Jaixek ailegetako desietan egoten gitzuan. Gure jantzi dotorienekin faten gitzuan kalera, meza entzun, pasakalleetan parte hartu, sokamuturra ikusi, dantzan aspertu arte ein, eta berandutu baino lehenau etxera. Hareik egunek etorteko desietan egoten gitzuan. Munduko urre



Joxerra Agirreurreta

“Poetikoa da hori horrela kontatzea, 300.000 marabedi miserablengatik egin nindutela arrasatear baino”

danagatik be ez neukek aldatuko guk orduan jaixetarako geuken ilusiñue”.

Ezin dugu ukatu ilusioa gure eguneroko motorra dela, bera barik ezingo ginateteke bizi. Ilusio barik bizitzeak asperdura dakar. Denboraren joana gogaikarriagoa da. Bizitzak bere piper eta gatza galtzen du.

Neuri ere ikaragarritzko ilusioa egiten zidan Doke jokuaen istorioa kontatzeak. Alegia, Zaldibarko ibarra Oñatiko konteari irabazi genionekoa. Dena dela, jakintsu batzuk, erabaki honetara heldu ei dira: istoria horrek ez ei dauka oinarri sendorik. Oñatiko kontea, herriko erreketan parte hartu zuelako, Zaldibar saltzera behartua izan zen. Guk munduko ilusio guztiarekin kontatzen genuen istorioa, hankaz gora. "Arrasate gure herria" liburuak gertaera

honi eskaintzen zion tartetxoan ere, aldaketak egin dira. Aste Santuan gertakizun hura gogora ekartzeko antolatzen zen Doke txapelketa ere, soziedadeen arteko lehia hutsa izango da aurrerantzean.

Jakin badakit ilusioa historiarekin nahasteak ondorio larriak ekarri izan dizkigula. Ez dut uste oraingo honetan horrelako baten aurrean gaudenik. Neu, Doke jokoari esker arrasatearra izateaz poztu egiten naiz. Oraintsu arte, Osina baserria Zaldibarko parte izan da; ondorioz, gu guztiok Oñatiko kontearen menpe izan ginen orain dela urte batzuk. Zer esango dizuet nik bada, poetikoagoa da hori horrela kontatzea, 300.000 marabedi miserablengatik egin nindutela arrasatear esatea baino. Herbesteratu naizen honetan, neuk herri berriko arratsalde hotzetan, neure umeei kontatzen jarraituko diet behin bazela Oñatiko kontea, oso konte gaiztoa zena, Arrasateko Zaldibar torretxea, soroak, eta errotak bere egin zituenena...



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubillaga, Maider Egües, Marian Porcel. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitlin Allende (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikere Altube (Tel.: 79 02 26) **Disolnua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobangoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Sailea, ASA, Ialdea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besside M. E., Karmelo Urbaren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Salin, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopli, Jon Ozaeta, Birginita Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkiak: Beñardo Kortabarría



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

361. zenbaki honetan

1997ko apirilaren 30ean

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen.....	9	Kirolak jokoan.....	19
Inkesta.....	6	Txutxumutxuak.....	10/11	Azoka plaza.....	20/21
Astearen errepassoa.....	7	Zaldibarko futbitoia.....	14	Kulturaren txokoa.....	22
		Asteko gaia.....	15/17		

Asteko gaia

Mahaingurua: Lan erreforma.....15/17

Kulturaren txokoa

İnigo Txintxurreta.....3

Memesa

79 42 22

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

30

asteazkena

■ **SAN ANDRESEKO JAIK**

Arratsaldeko 6.30etan jaien hasiera. Ondoren buruhandien eta kilikien desfilea. Gaueko 10.30etan dantzaldia *Carisma* taldearekin.

■ **MANIFESTAZIOA**

Jarraik deituta, egoera sozioekonomikoa salatzeko. Arratsaldeko 8etan, Seberotik aterako da.

■ **PIANO KONTZERTUA**

Akademiako ikasleen piano kontzertua Arrasate Musikaleko Areto Nagusian arratsaldeko 7.30etan. Sarrera doan.

1

osteguna

■ **ZINEA**

El imperio contraataca 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ **LANGILEEN EGUNA**

LAB sinkatuak antolatuta manifestazioa 12etan Seberotik hasita.

ELA sindikatuak Bilbora joateko autobusa goizeko 9.15etan Garibaiko geltoki zaharretik.

CC.OO sindikatuak Donostiara joateko autobusa goizeko 10etan Garibaitik.

■ **SAN ANDRESEKO JAIK**

Goizeko 10.30etan benjamin mailako futbito txapelketa. 11etan pilota txapelketa finalak. 11.30etan aurrebenjaminen finalak. 12.30etan meza. Eguerdiko 1.30etan bazkaria jubilatuen omenez. Arratsaldeko 5.30etan umeen jolasak. 7etan erraldoiak eta kilikiak. Gaueko 10.30etan *Carisma* taldearekin dantzaldia.

2

ostirala

■ **ZINEA**

El imperio contraataca 7etan eta 10etan.

■ **SAN ANDRESEKO JAIK**

Goizeko 11etan marrazki lehiaketa. Arratsaldeko 5etan umeendako jolasak. 6etan txokolatada. 6.30etan buruhandiak eta kilikiak. Gaueko 10etan rock jaialdia Maiatzak 1 plazan. 10.30etan *Talisman* taldearekin dantzaldia.

3

larunbata

■ **ZINEA**

El imperio contraataca 5etan. *Romeo y Julieta* 7.30etan eta 10etan.

■ **SAN ANDRESEKO JAIK**

Goizeko 10.30etan infantil mailako futbito finalak. 11.30etan alebinen finalak. 12etan futbolen eta ping pong txapelketak. 12etan artisau lanen erakusketa eta salmenta. Arratsaldeko 5etan karaokea Plazan. 6.30etan buruhandiak eta kilikiak. Gaueko 11etan show-a *Colorines* taldearekin. 12etan *Ensayo 6* taldearekin dantzaldia.



MADINA ZURAK

Madina Zurak eta bertako langileek suhiltzaileei, Udaltzaingoari eta Ertzaintzari eskerrak eman nahi dizkiete, eginiko lan azkarragatik.

Bestalde, eskertu baita ere, bezero, hornitzaile eta Arrasateko auzokideei eskainitako elkartasun adierazpenengatik.

Mila esker!

4

igandea

■ ZINEA

El imperio contraataca
5etan. *Romeo y Julieta*
7.30etan eta 10etan.

■ SAN ANDRESEKO JAIK

Goizeko 11.30etan
marrazki lehiaketa. 12etan
paella txapelketa. Arratsalde-
ko 4etan mus txapelketa. Gaue-
ko 9.30etan jaien bukaera.

■ CORAZÓN DE ENCINA

Arratsaldeko 7etan Play
Backa. 8.30etan Gomez anaien
akordeoi kontzertua. Ondoren
elkarteko ohorezko damak
eta erregina aukeratuko dira.

5

astelehena

■ ZINEA

Romeo y Julieta 7etan eta
9.30etan

■ HITZALDIA BATZOKIAN

Gaia: Etxeko lorei buruz-
ko oinarritzko ezagupenak.
Loren gaixotasunak. Hizlar-
ria: Xabier Kerejeta. 5etan
Arrasateko Batzokian. EAJ-
ko Emakumeek antolatuta.

■ BESAIDEREN MENDI ASTEIA

Diapositiba emanaldia.
Gaia: Turkiatik Birmaniara bizi-
kletaz. Emaleak: Amaia Elosegi
eta Esther Mugertza. Arratsalde-
ko 7etan Monterronen.

6

asteartea

■ ZINEA

Romeo y Julieta 7etan eta
9.30etan.

■ BESAIDEREN MENDI ASTEIA

Diapositiba emanaldia.
Gaia: Eskalada eta raftinga
Artikoan. Emalea: Asgard
Baffin. Arratsaldeko 7etan
Monterronen.

■ HITZALDIAK ALMENEN

Gaia: Urrundu egiten gara
gure seme-alabak adoleszen-
tziara iristean? (Lehen
zatia). Hizlaria: Jaume Funes
arratsaldeko 6etan. Almen
ikastetxeko areto nagusian.

7

asteazkena

■ BESAIDEREN MENDI ASTEIA

Diapositiba emanaldia:
Gaia: Peruko Cordillera Blan-
ca Huascaran, Alpamayo.
Emaleak: Bittor Amozarrain,
Mikel Arana eta Josu Pereda.
Arratsaldeko 7etan Monte-
rronen.

■ HITZALDIA ALMENEN

Gaia: Urrundu egiten gara
gure seme-alaba adoleszen-
tziara iristean? (2. zatia). Hiz-
laria: Jaume Funes, arratsalde-
ko 6etan. Almeneko areto
nagusian.

■ CORAZÓN DE ENCINA

6.30etatik 7.30etara ume-
endako txokolatada egoitzan.

8

osteguna

■ ZINEA

La canción de Carla
Amaia antzokian gaueko
9.30etan.

■ BESAIDEREN MENDI ASTEIA

Diapositiba emanaldia.
Gaia: mendi zurien gainetik
Pirineoetan. Egilea: Karmelo
Uribarren. Arratsaldeko 7etan
Monterronen.

■ HITZALDIA

Gaia: Elikadura orekatua.
Nola lortu zuri dagokizun die-
ta. Hizlaria: Amaia Perales die-
tista. Arratsaldeko 6etan AED-
ko lokalean. EKIN Elkartek
antolatuta.

kontuan hartzekoak

■ HERRI URRATS

AEDk Senpereko
lakuan ospatuko den
Herri Urrats jaira joateko
autobusa antolatu du.
Prezioa 1.000 pezeta.
Txartelak Iturriotz taber-
nan eta AEDn eros
daitezke. Azken eguna
maitzaren 8a. Autobusa
Garibaitik goizeko 8etan
irtengo da maitzaren
11n domeka. Bestalde
Seaskari laguntzeko
zapatuan beste autobus
bat izango da. Prezioa
1.700 pezeta. Irteera
arratsaldeko 3etan
Garibaitik. Izenematea
AEDn maitzaren 8a baino
lehen.

■ PINTURA ERAKUSKETA HARRÉSIN

Maitzaren 1tik 18ra
arte Rakel Perez de
Arenazaren pintura
erakusketa Harresi
aretoan. Ordutegia:
arratsaldeko 6etatik 8ak
arte. Larunbatetan eta
jaiegunetan 12etatik 2ak
arte eta arratsaldez
6etatik 8ak arte.

■ EUSKAL IKASLEEN II. BILTZARRA LEITZAN

Maitzaren 2an eta
3an Euskal ikasleen
biltzarra. Maitzaren 3an
kontzertua Leitzan.
Taldeak: Su ta gar,
Latzen, Defcondos,
Kashbad eta Gozategi.
Sarrera salgai Irati
tabernan 1.300 pta.
Takilan 1.500 pta.
Kontzertura joateko
autobusak antolatu dira.
Izenematea Irati tabernan
lehenbailehen

Nor aurkeztuko du EAJk Ardanza ordezkatzeko?



Maria Luisa Gonzalez
(Jubilatua)
75 urte

Zerbait entzun dut, baina Atutxa ez, desberdina da. Ordezkoa Ibarretxe izan daiteke, majoa da eta.



Francisco Cespedosa
(Jubilatua)
65 urte

Atutxa izan daitekeela uste dut, niri gehien bera gustatzen zait. Uste dut kargurako gizonik egokiena dela.



Narciso Quiros
(Jubilatua)
59 urte

Hobe Ardanzak jarraituko balu. Ordezkoa? Garaikoetxea izatea gustatuko litzaidake, baina ez denez EAJkoa...



Iñigo Zabala
(Langilea)
33 urte

Ez dut gehiegi segitzen, baina ikusita batzuk alderdiko karguak direla eta beste batzuk kargu politikoak, baliteke Egibar hor egotea. Politikoetatik, ez dakit, badago hor betaurrekodun gipuzkoar bat.




Miren Balerdi
(Etxekoandrea)
62 urte

Ez dakit,... ez da erraza, berak jarraitzea akaso onena. Ordezkoa? behar bada Madril-en parlamentari dagoena, Anasagasti, baina egia esan ez dakit.



Syska Nieves
(Ikaslea)
29 urte

Ez daukat idearik, baina beharbada Sodupe izan daiteke.



Jesus Sagasta
(Jubilatua)
67 urte

Normala uztea, urte asko egin ditu eta. Ordezkoa zein izan daitekeen? Ez dakit, hainbeste daude! Ibarretxe igual.



Estibaliz Iñurrieta
(Langilea)
33 urte

Ez dakit zein aurkeztuko duten, igual Arzallus? Izan leike, nahiz eta niri ez gustatu.

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea 1-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792944
ARETXABAILETA

BASABE
JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 79 91 84
ARETXABAILETA

astea bi hitzetan

■ **LABekoek prentsaurrekoa eman**

Joan den ostegunean prentsaurrekoa eman zuen LAB sindikatuak, maiatzaren lehena Euskal Herriko toki desberdinetan ospatuko dutela jakinarazteko. Manifestazioetariko bat Arrasaten egingo dutela eta, ekin-tza horretan parte hartzeko deia egin zuten. Prentsaren aurrean esan zuten, LABendako erronka handia da herrian manifestazioa egitea, baina itxaropentsu azaldu eta erantzun ona izango duela esan zuten. Maiatzaren lehenean LAB Gazteak taldea jendeaurrean aurkeztuko dutela ere aurreratu zuten.

■ **Kontzentrazio isila Lau Biden**

Hainbat lagun Lau Bide pla-

zan bildu ziren ostiralean, egun bat lehenago hil zuten poliziaren heriotza salatze-ko. Ohi moduan borobil bat osatu eta isilean egin zuten kontzentrazioa. Ordu laurden inguru iraun zuen protesta ekintzak.

■ **Ostiraleko plenoak mozioa onartu**

EAJko, PSE-EEko, EAKo eta EBko zinegotzien aldeko botoekin, ostiraleko plenoan onartu egin zen bake epaitegiaren aurkako erasoak salatze mozioa. PPko zinegotzia ez zen plenoan izan.

HBko zinegotziek aurka bozkatu eta idatzia irakurri zuten. HBkoen ustez, mozioak gertaera biolento batzuk salatu baina beste batzuk aipatu ere ez ditu eginen. Gainera, ez dituztela txikizioak justifikatzen eta gertae-

ra biolento guztien aurrean kezka azaldu izan dutela zioen HBkoen idatziak.

Ignacio Jimeno zinegotzi sozialistak, ez direla mugitzen leporatu zien HBkoei, eta ideia politikok indarra erabili barik defendatu behar direla esan zuen. Xabier Zubizarretak, Euskal Herriari oinarriko eskubideak ukatzen zaizkiola esanez erantzun zion sozialistari. Alkatearen iritziz, kondenek ez dute ezertarako balio eta egoera hone-tatik nola atera da erronka nagusiena.

PSE-EEko zinegotziak berriro ere mikrofonoa hartu, eta euren alderdiak beti ekintza biolento guztiak salatu dituela aipatu zuen. Bestalde, ETak hiltzeari utziko balio, presorik ez zela egongo iritzi zion Ignacio Jimenok.



*Aske izateko jaiak
eta ez loturik bere...*

BI MANIFESTAZIO BORROKA EGUNEAN

Ezker abertzaleak Edeitutako Borroka Egunean bi manifestazio egin ziren: eguerdian eta iluntzean. Eguerdikoan batez ere gazteek hartu zuten parte, eta Eskola Politeknikora joan ziren greba egiteko eskubidea aldarrikatzera, euren esanetan zuzendaritzak oztopoak jartzen ditu eta.

“*Filme bat egitea garesti den arren, bestelako maila batean kokatzen da laburmetraia bat egitea. Hala ere, milioi bat pezeta gertu (40.000 libera inguru) kostatzen da gutxienez ordu laurden pasatxoko produkzio bat egitea. Baina Arrasaten bideoaren alternatiba aukeratu zuten: merkeagoa delakoan, eta batez ere eskuragarriagoa zitzaielako materiala. ‘Milioi laurdenaren inguruan mugituko gara, baina hori ez litzateke posible Arrasate Telebistak bere materiala utzi ez baligu, punta puntako tresneria gainera, eta Arrasateko beste hainbat lagunek modu bateko edo besteko laguntza eman izan ez baligu’ azaldu du Jon Anduezak, proiektuko zuzendarietako batek. Momentuz ez dute inolako dirulaguntzarik, ‘baina eskatu ere egin ez dugulako. Zaila izango den arren zerbait lortzen ahaleginduko gara’, argitu du”.*

Argia
1997ko apirilak 27

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62



Zarugalde, 34
ARRASATE
Tel.: 77 00 71

AKELARRE

GOZOTEGIA

*Zure
momenturik
berezienak
ospatzeko!*



HANDIA



Kopia
handiak
(18x12)
kalitate
onenarekin.

EROSOA



Argazkiekin
batera
aurkibide
praktikoa
opari.

SEGUROA



Guztia gordetzeko
artxibatzeko kutxa
eder bat oparituko
dizugu.


Juan Juan
ARGAZKI DENDA
Uribarri etorbidea, 1
Tel.: 77 13 64
ARRASATE



Errotonda berri batek ordezkatu du Takoloko bidegurutzeara

Irailean hasiko diren obren ostean, alboan ikusten den itxura hartuko du Takoloko bidegurutzeara. Diputazioak LKSk egindako proiektua onartu du, eta horrez gain proiektua diruz lagunduko du. Guztira 155 milioi kostako zaio Aldundiari bidegurutzeara egitea.

LKSk arduradunek esan dutenez obra zaila izango da, batez ere errearen bidea zati batean aldatu eta zubia eraiki beharko delako. Zubiak ez du zabalera handirik hartuko, baina 38 metroko luzeera izango du.



LKSk egin du Takoloko bidegurutzeara hobetzeko proiektua. Obrak irailean hasiko dira eta lau hilabete iraungo dute.

Arrasate Kirol Proiektuak eta Udalak hitzarmena sinatu

Ikastetxeetako kirolak ofizialtasuna eskuratuko du hitzarmenarekin

Datorren astelehenean, lehenengo aldiz hitzarmena sinatuko da Udalaren eta Arrasate Kirol Proiektuaren (AKP) artean. Hitzarmenarekin, dirua emanez ikastetxeetako kirola bultzatzeko konpromezua hartuko du Udalak. Orain dela zazpi urte, AKP sortu zenetik, Udalak diruz laguntzen bada ere, asteleheneko ekintzarekin proiektuari sendotasuna eman nahi zaio. AKPko lehendakariaren, Alfonso Donnay-ren berbetan, Donnay-ren iritziz, hitzar-

menaren bidez proiektuak ofizialtasuna hartuko du.

Proiektuaren helburu nagusia eskola orduetatik kanpo ikasleei kirola praktikatzeko aukera ematea bada ere, ikastetxe desberdinetako ikasleen arteko harremanak ere bultzatu gura ditu. Horregatik, herriko ikastola, eskola publiko eta zentro pribatuek parte hartzen dute proiektuan, eta baita Aramaioko eskolak ere. Alfonso Donnay-ren berbetan, Gipuzkoa osotik Arrasatekoa

da ikastetxe desberdinak bartzuten dituen proiektu bakarra. Era horretan, ikasleek beste ikastetxe bateko ikasleekin parte hartzen dute kirol ekintzetan, horrek batzuetan beste ikastetxeetako kirol instalakuntzak erabiltzera ere behartuz.


Une honetan 7 eta 14 urte arteko 916 ikasle dira AKPko partaide (363 neska eta 553 mutil). Horrek esan nahi du adin horietan dauden ikasleeren erdiak parte hartzen duela proiektuan. Esan beza-

la 14 urterekin amaitzen da AKPren eta gaztearen arteko hartuemana, eta hortik aurrera gazte batzuk eurekontura egin behar izaten dute kirola. Hori dela eta, proiektuari luzapena ematea da proiektuaren erronka nagusia. Lehendakariak aurreratu bezala, derrigorrezko hezkuntza 16 urtera arte luzatuenez, adinaren muga luzatzea izango da Arrasate Kirol Proiektuak eman beharreko hurrengo urratsa.

Rent a Car

Alkilerreko autoak:
Twingo, Clio, Mégane,
Laguna, Espace...


Tel.: 79 50 12 / 79 52 12



**HORI DA
INDARRA!**

Zer gosalduko zuen mutiko honek larunbat goizean? Batek daki zer jan zuen, baina indartsu azaldu zen SFX ikastolak antolatutako ekintzetara.

Ze pena Iñaki Perurena egun batzuk lehenago izan zela ikastolan. Zapatuan joan eta mutikoa ikusi izan balu...



**AUPA SAN
PRUDENTZIO!**

San Prudentzio eguna zela eta, astelehenean bazakaria egin zuten Araban jaiotako baina Arrasaten bizi diren gizon hauek. Ahaztu egin zitzaigun zer bazkaldu zuten galdetzea, baina karakolak jango zituztela espero dugu.


Dakigun bakarra zera da: sukaldaria gipuzkoarra zela.



**HITZALDIA: Elikadura orekatua.
Nola lortu zuri dagokizun dieta.**

HIZLARIA: Amaia Perales. Dietista.

Maiatzaren 8an (osteguna), arratsaldeko 6.30etan • AEDko lokalean (Pablo Uranga, 4)

ANTOLATZAILEAK:  Ekin
Erakundeak • AEB

Laguntzaileak:



ARRASATEKO UDALA



SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

BAI-BAI
Umeak
Moda
Lurrindegia
Opariak

Bañez Doktoarea, 15
(San Andres) • ARRASATE
Tel.: 79 06 37

URREZKO EZTIAK

Enrike Lazkanok eta Maria Goitiak ezkondata daramatzaten 50 urteak ospatu zituzten apirilaren 26an. San Frantzisko elizan meza entzun eta gero, senitartekoez elkarrekin bazkalduta zuten. Bikoteak hiru seme eta alaba bat du: Rikardo, Carlos, Enrike, eta Kontxi. Izatez Araotzekoak direnez, 1947an Araotzeko elizan ezkondu ziren. Zorionak bikote eta urte askotarako!



EURIA ALA EGUZKIA?

Eguraldi adituek larunbatean euria egingo zuela aurreratu zuten, Skaut taldekoak aterkiarekin joan ziren zapatuko bazkarira. Zorionez eguraldi gizonak ez zuten igarri, eta aterkia eguzkitik babesteko erabili behar izan zuten. Hainbesteraio jotzen ete zuen eguzkiak?



GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxe: 79 01 82

Lantalde profesional zuri zerbitzu o



Jose Mari Barrutiabengoa
Gerentea.



Mercedes-Volvo.



Mikel Madinabeitia
Salmenta Buru.
Nissan-Volvo.



Tomas Muñoz
Salmenta Buru.
Chrysler-Hyundai-Mercedes, V.O.



Nissan.

Zure autoaren karrozeria esku or
ALDIAK TAILERRERA (Durangon).
Karrozeria tailerrean estatu mail
ren irabazlea. Kalitatezko konpon
roarengan pentsatuz kotxearen b

helburu bakar batez: ena eskaintzea




Chrysler-Hyundai-Mazda.




etara eramaten dugu:

"Recambios & Accesorios" sariazkarrek agindutako eperako. Beze-
itzu osatuena.



Asier Linazisoro
Salmenta-osteko
zerbitzu buru.



Aitor Linazisoro
Harrera.

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Fosforos	6	4	2	0	30	14	10
Sortu Informatika	6	4	1	1	26	26	9
MSM Ing. Int.	6	3	1	2	27	28	7
Aurrea Bolie	6	3	1	2	26	19	7
Abinagraus	6	3	0	3	24	21	6
Adelaida Aldibi	6	1	1	4	14	29	3
Txeyenex	6	1	1	4	23	29	3
Pepelus	6	1	1	4	18	28	3

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranja Mekanika	6	5	0	1	31	17	10
AC Surcos	6	4	0	2	26	20	8
Insert Coin	6	4	0	2	25	22	8
Koka Juniors	6	3	1	2	26	22	7
Orlando Piratas	6	2	2	2	26	17	6
Okoretegi	6	3	0	3	20	20	6
Totem	6	1	1	4	14	28	3
Arrogoi Taberna	6	0	0	6	8	29	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	6	6	0	0	51	15	12
Diego Antonio	6	4	1	1	35	21	9
Galartza Kont	6	4	0	2	26	13	8
Sokoakoak	6	3	1	2	36	35	7
Me la Pela	6	3	0	3	23	25	6
Lorategi	6	2	0	4	26	41	4
Onaniereng	6	1	0	5	15	42	2
Lso Innombrables	6	0	0	6	20	43	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Nuevo Taberna	6	5	1	0	39	18	11
Cerveceria LEintz	6	4	0	2	31	20	8
Betrayer	6	3	1	2	23	24	7
KK Jauriaritzari	6	2	2	2	24	26	6
Ke oxtias	6	3	0	3	26	22	6
Bedarreta Tab.	6	2	1	3	21	26	5
Jotakabau	6	0	3	3	23	29	3
Ojo avisore	6	0	2	4	19	39	2

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Emaizak

A taldea

Sortu Informatika 4 - Pepelus 3
Adelaida Aldibi 1 - Fosforos 6
Txeyenex 2 - Abinagraus 7
Aurrea Bolie 2 - MSM Ing. Int, 5

B taldea

Naranja Mek. 6 - Insert Coin 3
Totem 3 - Orlando Piratas 3
Okoretegi 6 - Koka Juniors 4
AC surcos 1 - Arrogoi Taberna 0

D taldea

Irati STS 6 - Los Innombrables 2
Onaniereng 3 - Sokoakoak 7
Lorategi 2 - Galartza Kontenedoreak 6
Me la Pela 1 - Diego Antonio 9

E taldea

Betrayer 1 - ke Oxtias 0
Jotakabau 3 - Ke oxtias 6
Cerv. leintz 6 - KK jauriaritzari 2
Bedarreta Tab. 3 - Nuevo Tab. 8

Hurrengo partiduak

Maitzak 2, Ostirala

Zaldibar

10.50 Diego antonio - Onaniereng
12.00 Irati STS - Lorategi
16.00 Pepelus - Abinagraus
17.00 Sortu Informatika - Txeyenex
18.00 Betrayer - Cerveceria Leintz

Maitzak 3, Larunbata

Zaldibar

10.50 Bedarreta Taberna - Ke oxtias
12.00 Nuevo Taberna - Jotakabau
16.00 Insert Coin - Koka Juniors
17.00 MSM Ingenieria Itegral - Adelaida Aldibi
18.00 AC Surcos - Orlando Piratas

Maitzak 4, Igandea

Zaldibar

9.50 Naranja Mekanika
11.00 Aurrea Bolie - Fosforos
12.00 Me la pela - Sokoakoak

**TOLDOS
LECE C/B**

Kataide Poligonoa, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 79 23 83
Faxa: 77 04 45

Eguzkiaren indarrari gogor egiten dion marka sendoa gara.

Baster-alde

Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • AREIXABALETA
Tel.: (943) 79 24 58



Lan munduaren gaian berba egiteko bildu genituen herrian ordezkaritza zabalena duten lau sindikatuak.

Mahaingurua Lan erreforma

Beñardo Kortabarría

Estatuko UGT eta CCOO sindikatuen adostasunarekin onartu zen lan erreforma orain hiru bat aste. Maiatzaren 1aren bezpera honetan, herriko lantegietan ordezkaritza zabaleneko lau sindikatuak duten jarraera ezagutzeko aukera izango duzue Arrasate Pressen.

ELAko Luis Miguel Saenz, Langile Komisioetako Ezker Sindikaleko Juan Ramon Garai, LABeko Garbiñe Aranburu, eta UGTko Salvador Peña bildu genituen mahaia-
ren bueltan.

- Nola ikusten duzue orain gutxi onartutako lan erreforma?

J.R. Garai: Nik Deba Garaiko Langile Komisioen izenean egingo dut berba, lan erreformaren gaian ez gaudelako ados estatu mailako sindikatoaren erabakiarekin.

Aurrez egin diren lan erreformek ez dute enplegua sortzeko balio izan, eta honek ere ez du hori konponduko. Orain esaten zaigu enplegurik ez dela sortuko, baina behin-behinekotasunarekin bukatuko dela. Sindikatoek lantegietan egiten dugun lana aldatzen ez bada, ez dugu behin-behinekotasunarekin bukatu-

ko, behin-behineko kontrato gehienak oraindik indarrean daudelako.

S. Peña: Erreforma hau guretako aurreko gobernua-
rekin egindako erreformaren erreforma besterik ez da, ez delako erreforma osotasunean egin, aldaketa batzuk bakarrik. Ez da UGTk berretzat egingo lukeen erreforma, negoziaketa prozesu batean gauza batzutan amore eman behar izaten da eta.

Negoiazioaren bidea hartu dugu oraingoan, eta uste dugu egun bakar batean borroka egiten baino, bide honetatik gauza gehiago lor daitekeela.

J.L. Saenz: Erreforma bi aldetatik ikus daiteke: juridikoa batetik, eta politiko soziala batetik. Azken honetan dago gakoa. 5. erreformaren aurrean gaude, eta lehen aldiz ez da aurkako jarrerarik planteatzen ari.

ELAn uste dugu, erreformarekin denboran zehar langileek lortutako baldintza eta eskubide mordoak galtzen dela. Laburtuta erreforma langileen oparotasunaren antitesia litzateke, atzerapausu galanta.

G. Aranburu: LABen ikuspuntutik erreformak ez du ezer onik, ez du eta enplegua sortzeko ezertan lagun-

tzen, ezta behin-behinekotasunari aurre egiten ere.

- Zehaztuz, zer du on eta zer txar?

J. R. Garai: Aldi baterako kontratua eta egungo ikasketak kontratua hobetzen dira, ekintza berrien laguntzarako kontratua desagertarazten da, eta "hutsuneko kobertura" izenekoa sortarazi. Lan erreforma honekin greba orokorren aroa ixten da, gobernuak langileen aurkako neurriei aurre egiteko antolatzen ziren greba orokorrekin. Negoziazio estrategia osoa, negoziazio mahaian jarri da, eta mahai horretan indarrak aldatzeko ez da mobilizazioetara deitu. Zehaztuz, arazo garrantzitsuenak bi lirateke: despido objektiboa eta mugagabeko kontratazioa.

S. Peña: Erreformaren erreforma honetan alde batzuk besteak baino hobekak dira,

egia da. Despidoa merketu dela? Despido objektiboa kaltegarria izan daiteke, baina gainontzean ez dago aldaketa handirik. Kontratu mugagabeak egiteko aukera eskaintzen da eta ondorioz gero indemnizazioak kobartzekoa. Era berean, ikasketa kontratuan aldaketak daude, eta asko hobetzen da eskubideei dagokienez.

Komunikabideei saldu nahi zaie erreforma handia egon dela, baina ez da hainbestekoa izan. Enpresariok ez badute inbertitzen erreformak ez du ezertarako balio izango, ez honek eta ezta besteren batek ere.

J.L. Saenz: Erreforma hau aurrekoen bidetik doa. Aurrekoekin patronalak lanmerkatu malgua lortuta zeukan, era guztietako kontratuen bidez. Hori lortuta, kapitalak bi erronka zituen: batetik, finko zegoenak finkotasunaren

pribilegioa ez izatea. Orain arte finko zegoena lanetik bidaltzea oso garestia zen, merketu beharra zegoen eta hori eskaintzen dio erreforma honek. Bestetik, erreformaren beste zati bat geratzen delate uste dut, pentsiodunena, eta hori ere etorriko da. UGTren eta Langile Komisioen zuzendaritzek sumisio jarrera hartu dute.


G. Aranburu: Ikasketa kontratuetan ez du apenas ezer hobetzen. Aldi baterako kontratuak, obra kontratuak etab. ez dira batere argi geratzen, ondo erregulatu barik. Despido objektiboaren inguruan bat nator hemen gehienok esandakoarekin, eta beraz ez dut ezer asko gehituko. Aldi baterako enpresak, ordu extrak, eta lanaren banaketaz zerbait aipatzen da erreforman, baina ez da konpromezurik hartzen.

Behar bada, esango nuke


konbenio kontuan, garrantzi handia ematen ari zaiela sektoreko konbenio kolektiboetara eta hori sindikatuok alde batera uzten gaituztela. Zentzu horretan euskal lan-harremannen eremura jo beharko genukeela uste dut, horren alde egin. Bi sindikatuk erreforma sinatzerakoan, borroka egin beharrean amore eman da.

- Erreformari gehienbat bi kritika egin zaizkio, despido erraztu eta aldi berean merketu egiten duela. Ados zaudete?

J.R. Garai: Egaralurreko gaia datorkit burura. Enpresarioak despido objektiboa aurkeztu zuenean langileek ez zuten onartu eta epaiketara eramane zuten. Emaizta? Legez kontrako kanporatzea. Urteko 20 eguneko indemnizazioa ordaindu beharrean 45ekoa ordaindu behar izan zuten. Egoera hori errepikatu egin da toki askotan, eta esta-



"Negoziazio estrategia osoa, negoziatio mahaian jarri da, eta mahai horretan indarrak aldatzeko ez da mobilizazioetara deitu" • Juan Ramon Garai (CC.00)



"Patronalak finkoen segurtasun ezaren beharra zeukan, eta non zegoen hori? Indemnizazioetan. Eta orain badu hori" • Luis Migel Saenz (ELA)

tu mailan epaiketen %40a langileek irabazi dituzte eta %15a enpresarioek. Erreformarekin, langileek epaiketa bidea hartzen badute, galtzeko arrisku handia dute.

S. Peña: Hori da erreforma honen aurka erabil dezakezen argumentu bakarra. Guretzat ere ez da pozgarria, lor genezakeen onena izan da. Orain arte, epaitegietan despido objektiboa ez bidezko moduan ematen zen, horregatik 45 eguneko bihurtzen zen. Orain zer gertatzen da, nahi duten moduan erabili dezaketela? Ez, arrazoi ekonomikoa ere egon behar da.

J. L. Saenz: Erreforma honek, objetibotasunez begiratuta, ez digu ezer ekartzen. "Enpresariengan modernista izateko borondate ona somatu dugu" irakurri dut, eta guk badakigu enpresarien borondatea zein den. Historiak era-

kusten digu sindikatoen borondate eta lorpenak, lana eginez eta borrokatuz ateratakoak direla.

Erreformak zer eskaintzen digu? arauak? borondateak?... uste dut ezin garela hipokrita izan. Patronalak finkoen segurtasun ezaren beharra zeukan, eta non zegoen hori? indemnitzazioetan. Eta orain badu hori.

J. R. Garai: Negoziazio kolektiboaren gaian bat nator Garbiñerekin, sektoreei lehenetasuna ematen zaio eta, eta horrek arazoak ekar ditzake Autonomi Elkarteetan, ez dugulako gehiengorik. Zentzu horretan Langile Komisioek aurkeztu izan dugu gure kontrako jarrera.

Behin-behinekotasunetik finkora pasatzeaz, uste dut oso zaila izango dela ikusita zein motako kontratoak aldatu diren. Gobernuak enpresariei ez badiete kristoren erraz-

tasunak ematen kontratu finkoak egiteagatik, nekez ikusten dut horrelakoak egingo dutenik.

ELA eta LABek konbentzioen bidez erreformari aurre egiteko asmoa ei duzue...

G. Aranburu: Gai honetan argi dago adostasuna dagoela sindikatu bien artean. Maiatzaren 1a bakoitzak geure aldetik ospatuko dugu, baina lan erreformaren aurrean elkarrekin lan egiteko asmoa dago.

Aldi baterako lan enpresen eta ordu extremen aurka, edo lanaren banaketaren alde egin behar izateak ez du esan nahi lan erreforma hau kritikatu ezin denik. Enpresariet ez dute kontratu finkoak egiteko motiborik, behin-behinekokoak hor daudelako ia zeuden moduan. Hor daudenez, eta despidoa merketzen zaienez, gauzak errazten zaiezkie.

S. Peña: Lehen ere erraz zeuzkaten. Gobernuak, eskumako gobernuak, irudi bat saldu nahi dio iritziz publikoari, adostutako erreformarena. Baina horrek ez du ezer ekarriko, enpresariet inbertitzen ez duten bitartean ez delako enplegurik sortuko.

J. R. Garai: Bi gai daude, kritika eta erresistentzia. Erreformak ez du enplegua sortzen, ordu extrak, behin behinekotasuna... eta hor sindikatuen arteko blokea egin beharra dugu. Kritika ondo dago, baina elkarrekin egin beharra ere badago.

J.L Saenz: Bukatzeko bi gauza esan nahi nituzke: Bat, LAB eta ELA artean geure estrategia lantzeak ez du esan gura inoren kontrako estrategia denik. Bi, langilegoak gehiketarako egin beharra dauka, ez kenketarako eta uste dut hor bat egingo dugula tril. ■



"Euskal lan-harremanen eremura jo beharko genuke, horren alde egin. Bi sindikatuk erreforma sinatzerakoan amore eman da" • Garbiñe Aranburu (LAB)



Salvador Peña (UGT)

"Enpresariet inbertitzen ez duten bitartean erreformak ez du ezer ekarriko, berez ez duelako enplegurik sortuko" • Salvador Peña (UGT)

Taldea: Lanònima Imperial
Koreografiak: "Els gestos del cami" • "Ecos del silenci"

DANTZA GARAIKIDEKO XIV IHARDUNALDIAK
MAIATZA 1997

MD
97



MAIATZA DANTZAN

Amaia antzokia • Maiatzak 10 (larunbata)
Sarrera: 800 pta. • Gazte-Txartelarekin: 600 pta.



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Gimnasia erritmikako epailea

ESTHER BARCENILLA

“Euskadin eta batez ere Gasteizen gimnasiako maila ona dago”

— Zer egin behar da gimnasic epaile izateko?

— Lehenengo entrenatzaile titulua atera behar da eta ikastaro horretan puntuazio kode izeneko ikasgai bat dago. Hori gaindituz gero, epaile titulua ateratzen da.

— Epaile lana non betetzen duzu?

— Estatu mailako txapelketetan. Reina Sofia kopan eta Estatu txapelketak epaitu ditut Euskal Herrikoetz gain.

— Zer hartzen da kontuan gimnasta baten lana epaitzeko?

— Gimnasta bakoitzak puntuazio kode bat du, exigentziak eta egin beharreko zailtasunak zehazteko. Horren arabera epaitu behar da. Kode horretan ere, bonifikazio batzuk daude hainbat gauza baloratzeke; gimnastaren estetika, gimnastaren eta tresnen arteko erlazioa, musika.

— Zaila da epaitzea?


— Nibel handia eta ezaugarri berdintsuak dituzten gimnasten artean bai. Zehatz mehatz begiratu behar da, itxuraz ariketak primeran daudela eman dezakeelako.

— Hamar puntuaketa emateak zer esan nahi du?

— Kode arauak eta bonifikazioak primeran betetzea. Zaila da hamar bat ematea eta zailagoa gimnasta baten perfekzioa baloratzea kirola ondo ezagutzen ez baduzu.

— Gimnasta onena?

— Bulgariako Maria Pedrova, eta epaitutakoen artean Gasteizko Paula Oribe.



FUTBOLA Mondra-UDA derbia Atxabalpen



Preferente mailako Mondrak Ordiziaren kontra jokatu du denboraldiko 34. ihardunaldian. Neurketa ostegunean jokatu da arratsaldeko 5etan. Jesus Mari Barrutia-bengoaren mutilak beti bezala irabaztera zelairatuko dira eta kontuan hartuta lehen bueltan Atxabalpen 4 eta 0 irabazi zutela, pentsa daiteke puntuekin itzultzeko ez dutela arazo gehiegi izango. Domekan beste norgehiagoka bat jokatu du Mondrak Atxabalpen, aurkaria Aretxabaletako UDA taldea. Derbia arratsaldeko 5etan hasiko da eta klubaren eguna izango da. Partidu lehiatsua eta bizia izango dela ez dago zalantzarik. Joko aldetik beharbada ez da izango ona baina gogoz eta indarrez jokatu da.

Emakumeek ere bi neurketa izango dituzte zubi honetan. Ostegunean lkesiren kontra neurtuko dituzte indarrak Zornotzan. Domekan 12etan kopako hirugarren norgehiagoka jokatu dute Atxabalpen Lagun Onak taldearen kontra.

SASKIBALOA Bigarren play offa jokoan



Urbina Maltzagak ezin izan zuen Manresaren kontrako neurketa irabazi eta ondorioz beste play off bat jokatu behar du mailari eusteko aukera izateko. Pinturas Lepanto izango dute aurkari. Lehen partidua ostiralean jokatu da Monzonen eta hurrengoa dome-

kan. Hirugarren bat beharrezkoa balitz, Iturripeko kantxan jokatu litzateke. Arrasatearren derrigorrez irabazi behar dute eta jokalariek hori ondo baino hobeto dakitene. Kanporaketa gainditzen badu Urbina Maltzagak EBA ligan jarraituko du. Galduz gero, bigarren mailako talde bihurtuko da.

ATLETISMOA Urrezko eta brontzeko dominak



Arrasate kirolak taldeko atletek Ordizian egindako kadete mailako Gipuzkoako txapelketan hartu zuten parte. Guztira 9 domina etorri ziren Arrasatera. Unai Sarabiak urrezkoa lortu zuen 300 metrotan 37" 92 ehuneko denborarekin. Ez da ahaztu behar Unai duela 15 egun Gipuzkoako onena izan zela 100 metrotan. Brontzeko dominak bestalde ondorengo korralariek lortu zituzten: Jonathan Perezek eta Maitane Arizmendiarrietak 300 metro hesitan, Alazne Ruiz de Munainek 1.000 metrotan, Oskar Gabilanek pisu jaurtiketan, 4X 400 errelebo proban Sarabiak, Perezek, Juezek eta Juradok, 2 minutu eta 46 segunduko denborarekin.

ESKUBALOA Jauja aurkari zapatuan



Arrasate eskubaloia taldeak Mutrikuko Jauja taldearen kontra neurtuko ditu indarrak kopako 7. partiduan, zapatuan arratsaldeko 6.30etan Iturripen.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Erdialdean dagoen etxea salgai. 4 logela, 2 komun, saloi eder bat eta garaje itxia. Tel.: 79 42 13.

- Gasteiz erdian atikoa salgai. Egoera onean. Tel.: 79 01 26. Gaez deitu.

- Aretxabaletan pisua salgai. Erreformatuta eta erdi jantzita. Tel.: 79 25 71. Dei egin denda ordutegian.

- Juan Carlos Gerra plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 41 48.

- Pisua salgai Izarra dorrean. Tel.: 65 37 21.

2. Erosi

- Deba Garaian 60 m²ko apartamentua erosiko nuke. Dei egin gaez. Tel.: 79 23 60.

3. Errentan emateko

- Duplex-a alokatzen da Zarautzen. Txukuna eta hondartzatik 200 metro-ra. Prezio egokia. Tel.: 83 56 36.

- Pisua alokatzen dut erdialdean. Tel.: 79 59 96. Dei egin Betatik aurrea.

- Ezkaray-en pisua alokatzen da uztaila eta irailean. Oso ondo prestatutako urbanizazio baten (pizina, tenisa, umeendako tokia...) Tel.: 79 31 56.

4. Errentan hartzeko

- Alokatzeko pisu bila nabil Arrasaten. Tel.: 79 77 32 / 79 97 55.

- Etxebizitza alokatuko nuke ahal ballitz Zigarrolan. Tel.: 79 02 66. Igone.

- Arrasaten pisu bila nabil. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

- Etxea edo logela bat alokatuko nuke Leintz bailaran. Tel.: 745 41 03 03. Lan ordutan. Amaia.

5. Etxe konpartituak

- Pisu konpartitu baten gela bat nahi dut. Tel.: 79 96 10.

- Pisua osatzeko laguna behar dugu. Eskola Politeknikoaren ondoan. Tel.: 77 05 00.

- Konpartitzeko edo alokatzeko etxe bila nabil. Tel.: 79 99 82. Iñaki. Gaez.

ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxe konpartituak
- Bestelakoak

GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatuak
- Eman
- Hartu
- Galdu
- Aurkitu
- Bestelakoak

HARREMANAK

- Agurrak
- Kontaktuak
- Deialdiak
- Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otorlora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

GARAJEAK

7. Saldu

- Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

- Jose Luis Iñarra kalean garajea salgai. Tel.: 79 36 69.

9. Errentan emateko

- Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

- Garaje itxia alokatzen da Uribarri etorbidearen 3an. Tel.: 79 33 48.

- Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

- Garajea errentan emateko daukat Kontzeziñon. Tel.: 79 55 20.

LOKALAK

12. Saldu

- Musakolako kiroldegia ondoan lokal komertziala salgai. 76 m². 8.300.000 pta. Negoziaerriak. Tel.: 79 59 75.

14. Errentan emateko

- Arrasaten erdigunean lokal komertziala saldu edo errentan ematen da. Ferrerias kalean, 72 m². Tel.: 79 97 86.

15. Errentan hartzeko

- Lokala alokatuko genuke lagun artean erabiltzeko. Tel.: 79 35 50.

16. Bestelakoak

- Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

- Esperientziadun neska gertu, denda, atarte edo tabernak garbitzeko. Tel.: 79 64 46.

- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 42 03. Maite.

- Esperientzia eta arduradun emakumea pertsona nagusiak zainduko

lituzke. Tel.: 79 05 90.

- Arratsaldean lan egingo nuke umeak zaintzen edo etxeko lanetan. Tabernetan lan egiteko ere gertu nago. Tel.: 79 77 79.

- Neska gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 94 62.

- Klinika laguntzailea eta geriatrian titulodun andra pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

- Emakume gaztea gertu etxea, atarteak edo bulegoan garbitzeko. Tel.: 79 59 75. Agus.

- Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 945 - 44 52 79.

- Bulegotan, dendetan eta etxeko lanetan esperientziadun emakumea goizez lan egiteko prest. Tel.: 76 82 12.

- Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

- Esperientziadun neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 79 31 44. Gaez.

18. Eskaerak

- Arrasateko ileapaindegij batean este-tizitza behar da. Tel.: 77 07 66.

- Neska behar da tabernan baten lan egiteko. Deitu 3etatik 5etara. Tel.: 79 00 34.

- Hiru edo lau hilebeterako elektrizitza bat behar dut tentsio bajuko berifikazioak egiteko. Tel.: 907 41 89 71. Santi.

- Kamareroa behar da. Tel.: 79 68 57.

- Emakumea behar da igandetan lan egiteko. Autoa beharrezkoa da. Tel.: 79 47 85.

- FP2 duen mutila elektrizitatean eta elektronikan aditua dena behar da. Tel.: 79 06 48.

- Aretxabaletako Zirt-Zart ileapaindegian lan egiteko neska bat behar dugu. Tel.: 77 09 44.

- Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel.: (945) 44 50 86.

19. Bestelakoak

- Gazte talde batek ezkontzatan abestuko luke. Oso merke. Tel.: 79 79 85.

- Jaunartze eta beste ospakizunetan soinuia jotzeko prest gaudu. Dantza eta giro ederra preziorik onenean. Tel.: 79 51 20 Igor eta 79 24 85 Jon. Gaueko 9etatik aurrera.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Alemaneko klase partikularrak eman edo itzulpenak egingo nituzke. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 13etatik aurrera.
- Esperientziadun neska larunbat gozetan klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 06 39.

21. Eskaerak

- Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsaldez edo gauetz. Tel.: 79 55 04.
- Zergatan aditua den laguna behar da eskolak emateko. Tel.: 79 32 54. Iñaki.
- 3. BUP eta 1. LOGSEko matematika eta fisika klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 66 56.

MOTORRA

23. Saldu

- Yamaha Virago 1.100 motorra salgai. SS-AJ. 1990 urtekoa. Extra asko ditu eta egoera onean dago. 700.000

pta. Tel.: 79 61 89.

- Opel Kadet GSE salgai. SS-X. Prezio interesgarria. Tel.: 79 74 10.
- Opel Corsa GT. Tel.: 79 93 75 / 79 22 50. 8 urtekoa. Egoera ona.
- Renault 11 TX autoa salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.
- Renault 11 TXE, SS-X salgai. Tel.: 79 22 85. Mikel.
- Suzuki DR2. 50 cm³ salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.
- Bultaco Cross 350 motorra salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.
- Renault 5 GTL salgai. SS-P. Egoera ona. Tel.: 79 81 35 / 77 93 30.
- BMW R-65 motorra salgai. Txuria, erubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

DENETARIK

26. Saldu

- Cibro markako berogailua eta Fagor

markako ur berogailuak salgai. Tel.: 79 81 25. Gauetz.

- Soprani markako soinua daukat saltzeko. Tel.: 79 82 06.
- Butaka relax salgai. Tel.: 79 22 92.
- Zapatak konpontzeko aintzinako makina salgai. 100.000 pta. Tel.: 79 81 70 / 71 50 72.
- Aluminiozko bizikleta salgai. XT piezak ditu. 50.000 pta. Tel.: 79 70 96. Felix.
- Harategiko 3 gondola, kuttxa erregistratzailea, markatzeko 2 makina, pisu elektronikoa, okindegiko mostradorea eta detektarko tresna gehiago salgai. Merke-merkeak. Tel.: 79 59 75.
- Igloo markako denda salgai. 5 lagunendako. Egoera onean dago. 8.000 pta. Tel.: 71 52 38. Maider.
- Auto barruan umea eramateko aukia salgai. Tel.: 79 44 14. 8etatik aurrera deitu.
- Macintosh Classic ordenadorea eta inprimagailua salgai. Tel.: 36 03 89.

27. Erosi

- Ura purifikatzeko Biozon (Fagor) aparailua etxean bazterturik baldin badau-

kazu, merke erosiko nuke. Dei egin gauetz. Tel.: 79 17 88. Karmen.

- Bigarren eskuko argazkiak proiektatorea erosiko nuke. Tel.: 79 55 88.

31. Galdu

- Eroskiko aparkalekuan zapi urdin bat topatu baduzu dei egin 71 44 56 telefonora. Esker ordaina egongo da.
- Eguzkitarako betaurreko graduatuk galdu zaizkit. Tel.: 79 40 09. Gauetz.

32. Aurkitu

- Poltsa bat aurkitu nuen Urkulun, apirilean, zapatua. Jabeak, gaueko 8etatik 10etara dei dezake. Tel.: 77 00 18.

HARREMANAK

36. Deialdiak

- 38.urteko kintoei deia: Urte honetan egiten ditugu 80 urte eta uste dugu denak elkartzea eta bazkari on bat batekin eguna pasatzea gauza ona izango zela. Animatu antolatzen! Angel Erguin. Tel.: 28 57 15.

Langileak eraso bortitzak jasatzen ari gara:

- Pentsio murrizketak.
- Lan erreforma.
- ETTen ugaltzea.

Honen aurrean... langileak mobiliza gaitzen.

Maiatzak 1 eguerdiko 12:00etan
Seberotik manifestazioa.

LAB

INIGO TXINTXURRETA

“Telebistako kamarak publikoak baino beldur handiagoa ematen dit”

Guztioi eragin digu barrea Inigo Txintxurretak. Tunantesekoekin batera edo Txirta taldeko lagunekin, beti ikusi dugu barrea eragin nahiean. Horregatik herrian ezaguna izateaz gain, “asko maite nau Arrasatek” esaten du. Orain bere kasa dabil antzerkigintzan eta orain hamabost bat egun, sekula ahaztuko ez duen esperientzia bizi izan zuen. Goenkaleren egon zen, Mertxeren eta Amaia hotelean fumigatzaile lanak egiten. Laister ikusiko dugu telebistan bost bat minutuko paperean.

— Nola egin zuten kontaktua zurekin arraldetarrek?


— 50 urteko emakume bat behar ei zuten paper bat egiteko eta Txirta taldean adin horretako emakumerik ba ote zegoen galdetuz deitu zuten. Ezetz esan nien, eta gainera, ez nuela adin horretako emakumezko artistarik ezagutzen. Azkenean esan zidaten nire argazki batzuk bidaltzeko, akaso zeozer irtengo zela eta. Argazki pare bat atera nituen, eta handik hilabetera deitu ninduten. Gidoia bi egun lehena-go bidali zidaten, beraz, ahal moduan ikasi eta hara joan nintzen, Arraldera, Mertxeren eta Amaia hotelela!

— Nor da Inigo Arralden?

— Fumigatzaile bat. Hotelean kukaratzak agertu direnez, azterketa bat egin eta gero konturatzen naiz ez dudala sekula kukaratzak mota hori ikusi eta ez dudala ezagutzen. Herrian kukaratzaren arazoaren txutxumutxua zabaltzen hasten da.

— Ondo moldatu zinen arraldetarrek?

— Oso ondo, oso jende jatorra da, benetan, baina ni oso urduri nengoan,



izerditan. Ezin nituen mugimenduak kontrolatu, denbora guztian ikara batean egon nintzen. Gainera elkarrizketa luzea nuen, eta ondo ikasita eduki arren, regidoreak bost, lau, hiru, bi... hasi! esaten zuenean, ahaztu egiten zitzaidan. Eskerrak jende guztiak animatu ninduenari eta oso ondo portatu zenari. Esperientzia berria eta aberasgarria izan zen niretzat.

— Ezenatokia ala platoa. Zer nahiago?

— Guztiz desberdinak dira, ez dakit. Uste dut telebista errezagoa dela. Edozein hankasartze egiten bada moztu egin daiteke baina antzerkian jendea aurrean dago eta ezin da obra moztu.

— Zerk ematen du beldur gehiago: kamarak ala publikoak?

— Kamarak, dudarik gabe. Begi erraldoi bat modukoa da. Zuk ez duzu ikusten baina badakizu jende pila bat duzula begira atzean, etxean hain zuzen. Txarrena da ez dela jendearen espresioa ikusten, ez dela jakiten norberaren lana gustatzen zaien edo ez.

aste gazte

■ BEKAK

• Atzerrian alemaniera, frantsesa eta ingelesa ikasteko bekak, Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoren ikasleei zuzenduak. Baldintza: ikasturte honetan Deialdi Orokorreko beka jasoa edukitzea. Epea: maiatzak 9.

• Endesa-97 Bekak, ingineritza ekonomi eta enpresa zientzian lizentziatuei zuzenduta. Enpresek erabiltzen dituzten funtzionamendu teknikak ikasteko bekak dira. Epea: maiatzak 14.

■ LANA

• Zangotzako Mankomunitateak, klarinete eta flauta trabesera irakasle bana behar du. Epea: maiatzak 11.

• Osasunbidea, Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2 gizar-te laguntzaile behar ditu. Epea: maiatzak 18.

■ BEGIRALEAK

• Debako Udalak begiraleak behar ditu ekainaren 30etik uztailaren 18ra bitartean izango diren udaleku irekietarako. Interesatuak, kurrikuluma bidali, maiatzaren 9a baino lehen.

■ SEXUALITATE TAILERRA



• 25-45 urte arteko neska-emakumeei zuzenduta, maiatzaren 13tik 29ra, astearte eta ostegunetan, 6etatik 8ak arte. Inskripzioak: Gazte Bulegoan edo Emakume Sailean.

■ LEHIAKETAK

• Algortako Juan Marra argazki lehiaketa. Gaia: itsasoa, ur azpiko argazkigintza eta akuarioak. Epea: maiatzak 15.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

Txintxurreta Goenkaleren 542. kapituloan agertuko da fumigatzaile papera egiten.



Gorbea, 2 behea
ARETXABALETA
Tel.: 77 09 44



**B
U
E
L
L
T
A
N**

**G
A
T
O
Z**

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate
bihurtzen diren
ilusioak...

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zeruogalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42

FAGOR

AR